

**Sindikatuok mendekuan eta gorrotoan oinarritutako espetxe politika salatu  
eta urtarrilaren 7ko manifestaziorako deia egin dugu**

Kartzela politika aldatu eta salbuespen neurriak bertan behera uzteko helburuarekin 2018ko abenduan hasitako dinamikaren barruan, elkarretaratzea egin dugu ELA, LAB, UGT, ESK, STEILAS, CGT/LKN, CNT, EHNE, HIRU eta Etxalde sindikatuok Bilboko Plaza Eliptikoan, Espainiako Gobernu ordezkariaren aurrean, “Etxera bidea gertu” lemarekin.

Aurreko hilabeteen salatu genuen Xabier Atristainen kasua, 3. graduan zegoen eta legeak dioen bideari jarraiki, birgizarteratze fasean aurrera eginez. Legea eskuan hartuta, baldintza guztiak betetzen ditu 3. graduan egoteko. Baina, hori hala izan arren, Audientzia Nazionalak, beste behin ere, atzera bota zuen.

Tamalez, kasu hau ez da azkena izan, eta hilabete honetan beste bi kasu ezagutu ditugu, 3. graduan egon arren, fiskaltzaren errekurtsioa kontuan hartuta, Audientzia Nazionalak 3. gradua kendu eta berriro ere espetxera bidali dituenak. Egoera berean beste hainbat preso daude, epaiaren zain.

Espetxe politikaren baitan aldaketak eman eta urruntze politikarekin amaitzeko urratsak ematen ari garen honetan, Fiskaltzak, Audientzia Nazionalaren laguntzaz, legedia arruntaren ezarpenaren aurrean eta etxeratze prozesuaren aurrean oztopoak jartzen jarraitzen du, elkarbizitza zangozabatuz.

Irmoki salatu dugu Fiskaltzaren eta Audientzia Nazionalaren jarrera. Legeak ezarritako bideari oztopoak jartzeko jarrera hau, iraganeko egoerara itzultzeko nahiarekin baino ezin dugu lotu, halakorik ezin baita bestelakoan ulertu. Izugarria da 2022. urtean oraindik mendekuan eta gorrotoan oinarritutako jarrerekin jarraitzea.

Baina dena ez da negatiboa, aurreko hilabeteen bezala, aste honetan jakin dugu, beste 7 euskal preso, EAE eta Nafarroako espetxeetara hurbilduak izango direla. Berri pozgarria zinez! 19 dira, espainiar estatuko kartzeletan geratzen diren presoak, ea bide beretik datozen lehenbailen!

Guk argi dugu, guk elkarbizitza eraiki nahi dugu, eta hori guztion artean egin behar dugu. Horrelako gertakarien aurrean, salbuespenezko espetxe politika behin betikoz amaitzea nahi dugunok elkarlanean aritu behar dugu, hori delako erantzunik eraginkorrena. Horregatik, sindikatuok ere, bide hori eraikitzen laguntzen jarraitu nahi dugu, atzerapauso hauek onartu gabe, bide hau eraikitzen jarraitzeko, datorren Urtarrilaren 7an ere Bilboko autonomia kalea betetzera deitzen zaituztegu, “Etxera bidea gertu” lelopean denok Bilbora.

Bilbon, 2022ko azaroaren 18an